



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2020KO MARTXOAREN 13KOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO IRAKASLE AGREGATUEN PLAZAK BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

2020ko urtarrilaren 13ko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko Irakasle agregatuen plazak betetzeko (2020ko otsailaren 5eko EHAA), eta amaituta onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea (deialdiko 4.1. oinarrian zehaztutakoa), Errektoreak ondokoa erabaki du:

*Lehena.*- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Leioako Errektoregoko Lehiaketen Ataleko iragarki oholean eta campusetako errektoreordetzetakoetan ikus daiteke, bai eta unibertsitatearen web orrian ere (<http://www.ehu.eus/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

*Bigarrena.*- Argitara ematea erabaki honen eranskin moduan agertzen den lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda.

*Hirugarrena.*- Erabaki hau izapide egintza kualifikatua da eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko UPV/EHUko Errektoreari, eta hilabeteko epearen barruan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta hurrengoetan jasotako moduan; edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa bada), edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa ez bada).


Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2020ko martxoaren 13a.

ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2017ko urtarrilaren 25ekoa, errektorearena, 2017/02/03ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

Izpta.: Inmaculada Guerricogitia Marina





Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

## **ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZAREN DATUAK:**

### **AGREGATUAK**

**Lanpostuaren zenbakia: 1. Kodea: AGC8L1- D00096-13.** Kategoria: Irakasle agregatua. Jakintza arloa: Hezkuntzaren Teoria eta Historia. Saila: Hezkuntzaren Teoria eta Historia. Ikastegia: Bilboko Hezkuntza Fakultatea. Hizkuntz eskakizuna: Elebiduna. Arduraldia: osoa. Burutu beharreko zereginak: «Hezkuntzaren Historia».

### **ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:**

Izena eta deiturak: KARMELE ARTETXE SANCHEZ  
NAN: \*\*\*9591\*\*

### **KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:** Bat ere ez

**Lanpostuaren zenbakia: 2. Kodea: AGC8L1- D00103-19.** Kategoria: Irakasle agregatua. Jakintza arloa: Ingeles Filologia. Saila: Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpen gintza eta Interpretazioa. Ikastegia: Letren Fakultatea. Hizkuntz eskakizuna: Ez-elebiduna. Arduraldia: osoa. Burutu beharreko zereginak: «Ingeles Fonetika».

### **ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:**

Izena eta deiturak: ESTHER GOMEZ LACABEX  
NAN: \*\*\*8037\*\*

### **KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:** Bat ere ez